

FUNTSEZKO JARDUERAK

Lehenengo jarduera gure enpresa aurrera joateko, **ezagutzera emateko publizitatea** egitea izango zen. Hasteko gure langiletako batek motorrez, automobilez edo oinez joango zen, eskuorriak herriko etxe guztietara eramatera. Beste aldetik, iragarkiak jarriko genituzke, irratian adibidez helduek ikusteko, edota mugikorreko jokoetan gazteek ikusteko.



Beste jarduera bat prezioak ahalik eta baxuenak jartzeko **prezio-politika** ezartzea da. Hasieran prezio erakargarriak izango genituzke jendea gure jatetxean interesa jartzeko, behin jendea interesatuta egonda eta bezero asko izan eta gero, prezioak igotzen joango ginateke, Burger King, McDonalds eta beste janari azkarreko jatetxeak egiten ari diren moduan. Bezeroek gustura sentitzea eta horien **leialtasuna** funtsezkoa ikusten dugu. Familien kasuan leialtasuna lortzeko, bola-parke bat eraiki dugu, haurrek jolasteko leku bat izateko Modu honetan, gurasoek lasai egon daitezke bazkaltzen edo hizketan, seme-alabek alde egiteko presarik ematen ez dieten bitartean.

Leialtasuna lortzeko jardueren artean ere, **opariak eta zozketak** egingo dizkiegu gure bezeroei, umeentzako menu berezi bat sortuko dugu, jostailu bat egongo da bertan, entretenitzeko, eta gurasoen kasuan, aparteko menu bat egingo dugu 1-3 euroko opariekin. Bestalde, ikasleentzat deskontuak egongo dira eta gure jatetxean 8 euro baino gehiago gastatzeagatik hileroko sari ezberdinekin egingo dugun zozketa batean sartuko gara.



Jarduera guzti hauekin, gure enpresa hazten joango da. Hasiera batean, ez dugu errentagarritasun handirik aterako gure negozioan, baina, denbora igaro ahala, jarduera horiei esker berreskuratuko dugu dirua eta etekinak izaten hasiko garela aurreikusten dugu.